



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

KONTSEILUA



PRENTSA OHARRA 2024/02/15

Euskararen Semaforoa

Euskararen presentzia eta absentsia ikusgarri egiteko; hizkuntza eskubideengan fokua jartzeko; euskarazko kontsumoa, eskaintza eta eskaria bultzatzeko... Guzti hauek xede, **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak** tresna berri bat jarri nahi du herritarren, elkarteen, entitateen, antolatzaileen eta instituzioen eskura. Praktikoa, argia eta zuzena, berehalako informazioa ematen duena, aurrean dugun eskaintzaren hizkuntza aukerei buruz. Aisialdia, ikastaroak, mintzaldiak, kontzertuak, argitalpenak, jai egitarauak... Denetarako baliagarria da **Euskararen Semaforoa**.

Kultura, aisialdia, gogoeta, musika, jaia... horrekin ere elikatzen gara euskaldunok. Horregatik, *nutre-score*-an oinarritutako ikur sorta sortu dugu, euskal hiztunak behar dituen *elikagaien* informazioa azkar batean jaso dezan. Zein ekintza da euskaraz? Eskaintza erdaraz izanagatik euskaraz mintzatzeko aukera izango al dut?

Euskarazko eskaintza eta kontsumoa bultzatzeaz gain, alor batzuetan euskararen eskaintza handitzeko beharra nabarmen eta agerian utziko du ekimenak. Programatzeko orduan hizkuntza eskubideengan arreta jartzea beharrezkoa da. Bide berriak zabaldu behar dira baita, adibidez, erdaraz eskaintzen den hitzaldi batean publiko euskaldunak galderak bere hizkuntzan egiteko aukera bermatuz; edo erdaraz eskaintzen den ikastaro batean, ikasleari euskaraz mintzatzeko aukera emanaz, irakasle elebidunak kontratatuz.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak elkarteak, instituzioak, programatzaileak,



antolatzaileak eta sortzaileak tresna hau erabiltzera deitu nahi ditu eta ekimenarekin bat eginez sarean **#euskararenSemaforoa** traola baliatu dezatela. Herritarrei berriz, euskarazko kultura, aisialdia, ekintzak eta ikastaroak eskatu, bultzatu eta kontsumitzera deitzen ditugu, eta eskaintzetan Euskararen Semaforoa ikurra bilatu eta galdegitera.

Azkenik, Euskararen Semaforoa erabiltzeko argibideak, diseinuak eta adibideak hemen jarri ditugu denon eskura: <https://labur.eus/euskararenSemaforoa>

Euskaraktibatu!

Mintzatu.Kontsumitu.Inplikatu

Gehiago jakiteko, jarraitu gaitzazu:
<http://aiaraldekoeuskalgintza.eus/>
<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskalgintzaKontseilua>

Sare sozialetan:

[youtube](#)

[facebook](#)

twitter [@eusk_kontseilua](#)

instagram [@aiaraldeko_euskal](#)

